# Gipuzkoa:
## ibiltzen erraza, ahazten zaila.

Public Travel Card




**Txartel bakarra garraio guztietarako.**



**Edonork erabil dezake**

Ez dago pertsona bati lotuta. Edonork erabil dezake eta ez du dokumentazio gehigarririk behar. **Iritsi, erosi eta mugitu, besterik ez**.

**Aurreztu lehen bidaiatik**

**Bidaia bakoitza % 60 merkeagoa da.** Txartelak 5 € balio du bakarrik eta 5 €-ko multiploetan kargatu dezakezu.

**Bidaiatu taldean txartel bakarrarekin**

**MUGI ANONIMOA**k aukera ematen du autobusean zenbait txartel hurrenez hurren ordaintzeko. Aproposa da lagunekin, familiarekin edo bikotearekin bidaiatzen baduzu.

**PERTSONA TALDEAK: EZ BALIOZKOTU, EZ IGOTZEAN, EZ JAISTEAN. ERAKUTSI TXARTELA GIDARIARI HARK BALIOZKOTU DEZAN.**



## Nola erabili

### Autobusetan

- Igotzean, hurbildu txartela **baliozkotzeko makinara**.
- Lurraldebusen hiriarteko autobusetan, gogoratu jaistean ere baliozkotzeaz, tarifa zuzena aplika dadin.
- **Taldean bidakatzeko** (gehienez 9 lagun)
  - **Hiriarteko autobusean (Lurraldebus),** lehendabiziko pertsonak gidariari txartela entregatu behar dio eragiketa hark egin dezan. Halakoetan, ez da jaistean berriro bakoizkotu beharko.
  - **Hiri barruko autobusetan,** igotzean baliozkotu bidaiari adina aldiz.

### Trenean (Euskotren eta Renfe Aldiriak)

- **Baliozkotu txartela behin bakarrik, sartzean.** Trenetan, pertsona bakar batek erabili ahal izango du bidaia bakoitzeko.

### Ibilgailu-aldaketak eta iraupena

- **MUGI ANONIMOA**k doako ibilgialu-aldaketak ahalbidetzen ditu, automatikoak dira.
- **12 hilabetez aktibo mantentzen da** azken kargatik. Ez erabiltzeagatik disaktibatuz gero, ez duzu saldoa galtzen: nahikoa da kargatzea.

## Non erosi eta kargatu



- **Gipuzkoako turismo-bulego,** kiosko, estanko eta geltoki **gehienetan eros dezakezu.** Euskotrenen eta Renfen kargatu besterik ez da egiten.
- Ordutegi, salmenta-puntu eta karga-puntu guztiak kontsultatzeko: **www.mugi.eus**
- Intzidentziarik izanez gero, deitu hona: **943 000 117**



**HAIN GIPUZKOA**